



## ZESTA PUNTA **DESAFIOA** GAUR ETA BIHAR

Pilotari zahar eta gazteen arteko erronka historikoa ikusteko aukera egongo da Tolosako Beotibar pilotalekuan >7

**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Ostirala  
2010-10-29**

VIII. URTEA 2.112. ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)

**KATRIN ITURRALDE ETA ENRIKE AZURZA** HODEIERTZ ETA OROITH ABESBATZETAKO ZUZENDARIAK

## «Lehiaketak duen maila altuagatik irabaztea izugarria izango litzateke»

**TOLOSA** 42. Nazioarteko Abesbatza Lehiaketaren lehendabiziko saioa gaur izango da Leidorren, 19:30ean

**ELKARREKIN** Tolosako Hodeiertzen eta Ordiziako Oroithen artean abesbatza bat osatu dute 4-5



I. TERRADILLOS



Edurne Rey eta Lucelia Montenegro Zinema Sozialaren aurkezpenean. A. IMAZ

## Edukiz betetako zine emanaldiak aurkeztu dituzte

**TOLOSA** Zinema Sozialaren emanaldiak azaroaren 3tik 23ra eskainiko dituzte Leidorren z

## Asier Izagirre mendigoizaleak hitzaldia eta proiektzioa emango ditu bihar Artubin

**BEDAIO** Etzi Azoka Berezia egingo dute frontoian, postuetan herritarren produktuak erosteko eta ikusteko aukera egongo da 3

**lorekolore**  
LUR ZERBITZUAK

LORATEGIA ETA BARATZERAKO BEHAR DUZUN **GUZTIA**

**SANTU GUZTIEN EGUNERAKO ZENTROAK ENKARGUZ**  
(Landerrenak bain ere murtuak. Auzara zabala)

**NEGU GARAIKO LORAK SALGAJ**

Aitune poligonoa, 4-G. OLABERRIA 943 88 30 53

# Errealitateak partekatu eta eraldaketak sortzea helburu duten emanaldiak

**Tolosa** » Mugarik Gabe Erakundeak antolatuta, zinema sozialaren lau emanaldiak 19:30ean izango dira Leidor Aretoan.

## ERREDAKZIOA

Tolosako kultur etxean atzo aurkeztu zuten azaroan Leidor Aretoan izango den Zinema Sozialaren Emanaldia. Udal teknikaria Irene Larraza, Mugarik Gabeko Erakundetik Edurne Rey eta Cauca (Kolonbia) Indigenen Eskualde Kontseiluko kidea den Lucelia Montenegrok eman zituzten emanaldien nondik-norakoak.

Mugarik Gabe Garapenerako Lankidetzarako Gobernuaz Kanpoko Erakundearen egitekoa, giza garapen integralerako eskubidea bultzatzea da, baina ez bakarrik garapen ekonomikoa. Garapen horrek, berdintasuneko izan behar du, emakumeen eta gizonen artean. Sei urte daramatzate zinema soziala egiten eta Tolosan laugarren urtea dute aurtengoa.

Ekimen honekin eta zinemaren bidez, munduan ematen diren errealitate ezberdinak herritarrengana gerturatu nahi dituzte. Herri indigenak gerturatu nahi di-



Edurne Rey eta Lucelia Montenegro aurkezpen ekitaldian izan ziren. A. IMAZ

## » ZINEMA SOZIALAREN EMANALDIAK

### Azaroak 3, asteazkena

- **19:30.** Leidor Aretoan, doan.
- **Proiektzioa.** *El velo de Berta*. Txile, 2004.
- **Iraupena.** 73 minutu.
- **Sinopsia.** Hainbat familia Pehuenches-en borrokaren historia kontatzen du pelikula honek. Zehazki familia hauetako emakumeen historia da. 1996tik aurrera inbaditzaile neoliberalari aurre nola egin zioten euren lurraldea, ibaia eta arbasoak defenditzeko. Emakume hauen artean Berta Quintreman zegoen, Endesa transnazionalak *Ito bio bio*-n ralco Presa Hidroelektrikoaren milioi askoko proiektua kolokan jarri zuen adineko emakume pehuenchea.

### Azaroak 9, asteartea

- **19:30.** Leidor Aretoan, doan.
- **Proiektzioa.** *13 pueblos en defensa del agua*. Mexiko, 2008.
- **Iraupena.** 63 minutu.
- **Sinopsia.** Euren baliabide naturalaren kontrola gobernu eta enpresariari eskuetatik berreskuratzeko Moreloseko Herrien Kontseiluak garatu zuen borroka kontatzen da. Azken urte hauetan, gobernuak eta enpresariari herrialdean ezagutu den *ekozidío* okerretakoa gauzatu dute.

### Azaroak 16, asteartea

- **19:30.** Leidor Aretoan, doan.
- **Proiektzioa.** *La isla*. Guatemala/Alemania, 2008.

### ■ Iraupena. 85 minutu.

- **Sinopsia.** XX. mende bukaerako Guatemala: Armadak eta polizia milaka eta milaka pertsona bahitu eta erail zituen. Hala ere, genozidio honek zigorrak jaso gabe jarraitzen du. 2005ean ordea, hiriburuan gertatutako ezusteko leherketa baten ondorioz, Polizia Nazionalaren artxiboa aurkitu zen. Gaur egun Poliziaren Akademia dagoen gunean zegoen Polizia Nazionalaren komando beldurgarrien kartzela sekretua: Uhartea (La isla). Bertan 80 milioi dokumentu baino gehiago aurkitu ziren. Dokumental, tragedia baten historia marrazten du eta krimenak argitzeko beharrezko diren frogak.

### Azaroak 23, asteartea

- **19:30.** Leidor Aretoan, doan.
- **Proiektzioa.** *La causa de Krijan*. Euskal Herria, 2009.
- **Iraupena.** 86 minutu.
- **Sinopsia.** Alassanek, Euskal Herriari bizi den Burkina Fasoko gazteak, anaiaren deia jasotzen du. Bere herrian, gurasoak, Bintou bere 6 urteko alabaren ablatzioa egiteko ados jarri direla esaten dio. Ospakizuna aste bateko barrurako dago aurreikusita. Alassanek ez du bere alaba mutilatzerik nahi, baina 6 hilabete besterik ez laizkio falta Espainian paperak lortzeko. Bere herrialdera joaten bada ez du bueltatzerik izango eta bere ametsa pikturara joango da.



# 2011 agenda

Dagoeneko salgai!



12€

- Liburu dendetan
- [www.euskalherriko plaza.com](http://www.euskalherriko plaza.com)

### Ezaugarriak:

- Hiru urtetako egutegia
- Intereseko telefonoak
- Euskal Herriko errepide mapa
- Aste osoa ikusgai

Aukera ezazu, bizi euskaraz **berria**

**MUNDUKO SUKALDARITZAK** → EUSKAL HERRIAN

EUSKARAZKO LEHEN SUKALDARITZA BILDUMAREN 4. alea

ALEMANIA • JAPONIA  
MAROKO • BRETAINIA  
INDIA • MEXIKO • VIETNAM  
ARGENTINA • LIBANO  
ITALIA • TXINA

**berriarekin eskaintza berezia**

EGIN ESKAERA urriaren 29a baino lehen [www.berria.info](http://www.berria.info) harpidetza@berria.info 943-30 43 45

Laguntzailea: FAGOR Aukera ezazu, bizi euskaraz **berria**

## Laburrak

### Tolosa Kantari bihar 12:00etan Tontokaletik

**TOLOSA** » Hilabetero bezala, Tolosa Kantari izango da bihar 12:00etan aurrera. Ohi bezala, Tontokaletik hasiko dira kantuan, alde zaharreko kaleetan barrena jarraitzeko. Euskal kantak entzun eta abesteko aukera izango da trikitilarien laguntzarekin. Abestien letra gabe inor geratu ez dadin, liburuxkak banatuko dituzte.

### Ikastaroak langile eta langabetuentzat doan

**TOLOSA** » Tolosaldea Goi Mailako Lanbide Heziketa Institutuak otsailean Fresagailua Fagor eta Officeko teknikaria ikastaroak eskainiko ditu doan. Lehena 40 orduko ikastaroa da eta bigarrena 210 ordukoa. Izen ematea ikastetxean bertan edota 943 65 11 47 telefono zenbakira deituta egin beharko da.

### Azaroaren 1ean autobus zerbitzu berezia Amasara

**AMASA-VILLABONA** » Santu guztien eguna dela eta autobus zerbitzu berezia jarri dute. Villabonatik Amasara igotzeko Olaederra Kiroldagitik aterako da. 09:30etik 13:30ak bitartean orduero igoko da. Amasatik jaisteko berri, 10:00etatik 14:00etara orduero izango da autobusa.

### Izar Agirre psikologoaren hitzaldiak Orixe Institutuan

**TOLOSA** » Izar Agirre psikologoak euskaraz hiru hitzaldi eskainiko ditu Orixe Institutuan. Azaroaren 2an, *Nerabezaroa* izango du hizketagaita. Azaroaren 9an, *Drogamenpekotasunaren prebentzioa* eta azaroaren 16an, *Gazteak eta Diziiplina* izango dira gaiak. DBHko 1, 2 eta 3. mailako ikasleentzako gurasoei zuzendutako dira. Hitzaldi guztiak 18:30ean izango dira.

# Himalayatik herriko produktuetara

**Bedaio** » Asier Izagirre alpinistak hitzaldia eta proiektzioa emango ditu bihar Artubi elkartearen eta etzi Azoka Berezia egingo dute frontoian.

MANOL GARCIA

Asteburu oparoa izango dute Bedaioan. Bihar Asier Izagirre alpinista tolosarrak hitzaldia eta proiektzioa emango ditu, Himalayan egindako azken espedizioei buruz. Etzi, berriz, III. Azoka Berezia egingo dute eta hamabost postu inguru jarriko dituzte herriko produktuekin.

Asier Izagirrek aurtengo maiatzean parte hartu behar zuen Bedaio Kultur Asteburuan, baina Eudurne Pasabanekin batera egiten ari zen erronkaren baitan agenda aldatuta izan zen. Konpromisoa mantendu du eta bihar emango du hitzaldia. Hori bai, maiatzean, Izagirrekin zuzenean egoteko aukera izan zuten bedaiotarrek. Annapurnako gailurra zapaldu ostean, espediziokideak Katmandun zeudela, internet bidez egin zuten elkarrizketa.

Biharkoan, Annapurnako espedizioaz gain, Himalayako beste bi mendiere izango ditu hizpide alpinista tolosarrak: Kanchenjunga eta Shisha Pagma. Hiru mendi horiek izan ziren Eudurne Pasabanek hamalau zortzimilakoak igotzeko erronkan azkenak.

Izagirrek azaldu duenez, «espero dut jendeak parte hartuko duela galderak eginaz». Ziurrenik ez da faltako Eudurne Pasaban eta Oh Eun Sun korearraren arteko polemikaren inguruko galderarik eta Izagirrek «bere ikuspuntua» emateko aukera baliatuko duela azaldu du. «Horrelako solasaldiak ondo etortzen dira jendea zuzenean ahalzateko bakoitzaren iritzia». Hitzaldi-proiektzioa, esan bezala, bihar izango da, Artubi elkartearen 19:30ean.

## Bi hilabete lehenago

Aurreneko bi urteetan abenduan egin den Azoka, aurten aurrerantz pentsatu dute bedaiotarrek eta etzi goizerako antolatuko dute. Zugastibarrena baserriko Rosi Goñi antolatzaileetako bat izateaz gain, postua izango du azokan.

Mondejoak saltzen ditu Goñik. Bere baserriko produktuak erabiltzen ditu mondejoak egiteko: «Ardiaren hesteekin eta seboarekin, porrua, tipula eta piperrarekin egiten ditut». Oso ondo saltzen direla dio. «Etxerako egiten ditut eta zenbaitzuk enkargatu egiten dizkidate».

Guztira 15 postu inguru izango dira eta denetarik egongo da salgai elikagaiei dagokionez: barazkiak, bakailaoa, gazta, babarruna... Hain justu, Azoka abendutik urrira aurrerantz euren arrazoiak bat baratzak garai honetan emankorra goak direla da. Bestalde, animaliak ere izango dira: zaldiak, ahuntzak, oiloak, ardiak eta behiak...

Bedaioetarrez gain, inguruko herrietatik ere joaten dira Azokara. «Lehenago urtean elurra izan zen eta zailtasun gehiago izan ziren Bedaioa igotzeko», gogoratzen du Goñik. «Halere, iaz ere jendea bildu zen. Aurreko bi urteetan abenduan egiterakoan eguraldi nahiko txarra izan genuen».

## Artisauen postuak

«Giro polita» izaten dela dio Goñik eta horretara laguntzen duela hainbat artisauk bere postua jaritzeak. «Lore lehorren postua izango da, makilak egiten ariko da bedaiotar bat, artilearekin haria egiten ariko dira bertako amonak, taloak egiten ere bai...». Aurtengo berritasuna makilen postua izango da. Hain justu, bedaiotarren ezizena *makilak* da. Baserrietako garai bateko tresnak ere ikusgai jartzeko dituzte Azoka gehiago girotzeko. Esaterako, Goñiren baserrian, ferratokia zenean, egon zen hauspo handi bat ere egongo da aurten Azokan. «Koinatak hartu zuen eta martxan jarri. Iaz arrakasta handia izan zuen eta aurten ere eramango dute».

Besteak beste, ondorengo baserri hauek jarriko dute postua etzi frontoian egingo den Azoka Berezian: Zugastibarrena, Etxeberri, Belarmuga, Jazku, Errota, Illor-



Rosi Goñik aurten ere baserrian egindako mondejoak salgai jarriko ditu. HITZA



Asier Izagirrek maiatzean Katmandutik zuzeneko lotura egin zuen Bedaioarekin. Bihar hitzaldia emango du. HITZA

ta, Eskoletxe, Zumizketa, Gurbilla txiki, Gurbil haundi, Arrupegue, Elezian, Bitarte, Larrañeta eta Bedaio Barrena.

Bedaioetik kanpoko bi gonbidatu ere izango dira Azokan. Alde batez, Abaltzisketako eskola egongo da. «Denok dakigu herri txikietan

eskola txikiak herriari ematen dion bizitasuna eta datorren urtean Abaltzisketan izango denez Eskola Txikien Festa, hauek Bedaioan izango ditugu festarako atera dituzten arropak aurkezten», azaldu dute azokaren antolatzaileek. Amarotz ere etzi Bedaioan izango da. «Beraien bitartez Nikaraguari lekutxo bat egingo diogu», diote.

Azkenik, umeei tartea eta par-taidetza zabaldu nahi diete eta 12:00etatik 13:00etara bitartean talo tailerra izango da beraiantzako, taloak egin eta jateko aukera emanez. «Nola ez, goizean zehar haurrek azoka girotuko digute beraien musika instrumentuen doinuekin». Azokaren amaierarekin bat, 14:00ak aldera bertako produktuekin osaturiko saski edertan zozketa egingo dute.

## Badator XX. Kros Herrikoia


ERREDAKZIOA

Ikaztegiatiko Herrigintza elkarteak antolatuta, eta bertako Udalen laguntzarekin, azaroaren 7an XX. Kros Herrikoia egingo dute. Aurten Behobia-Donostia lasterketaren aurretik izango da, beste urteetan astebete beranduago antolatua denean.

Hamar kilometroko ibilbidea du Kros Herrikoia. 11:00etan hasiko da proba eta aurretik, 10:45ean, haurrek parte hartuko dute bere lasterketan.

Izena probaren eguna baino lehen eman daiteke. Horretarako [www.herrikrossa.com](http://www.herrikrossa.com) webgunera sartu behar da. Bide horretatik egi-

nez gero 10 euro ordaindu behar dira. Lasterketaren egun berean ere izena eman daiteke, baina orduan 15 euro ordaindu behar dira. 09:00etatik 10:15era egin ahal izango da izen-ematea. Bestalde, dortsala hartzen duten aurreneko 300 korrikalarientzat kamisetak banatuko dituzte.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

### Elkarrizketa

**ENRIKE AZURZA ETA KATRIN ITURRALDE** Hodeietz eta Oroth abesbatzetako zuzendariek



# «Lehiaketa honetan parte-hartze hutsa saria da guretzat»

**Abesbatza Lehiaketa** Aurten bi euskal koru ariko dira: Gasteizko Crescendo eta Tolosako Hodeietz eta Ordiziako Oroithek osaturikoak.

ko dira txapela lortzeko lehiatzen. Horietatik, bi euskaldunak izango dira: Bata, Gasteizko Crescendo haurren abesbatza, eta bestea Tolosako Hodeietz eta Ordiziako Oroithek artean osatu duten abesbatza. Hasean, Abesbatza Lehiaketa lehiaketa honetan parte-hartze hutsa saria da guretzat. Hodeietz eta Oroth abesbatzetako zuzendariak, Enrike Azurza eta Katrin Iturralde, azaldu zuten hori.

Enrike Azurza: Lan gogorra egin dugu ziklo berriaren hasieran, eta zuzendari gisa, guretzat parte-hartze hutsa saria da guretzat. Hodeietz eta Oroth abesbatzetako zuzendariak, Enrike Azurza eta Katrin Iturralde, azaldu zuten hori.

Enrike Azurza: Lan gogorra egin dugu ziklo berriaren hasieran, eta zuzendari gisa, guretzat parte-hartze hutsa saria da guretzat. Hodeietz eta Oroth abesbatzetako zuzendariak, Enrike Azurza eta Katrin Iturralde, azaldu zuten hori.



Hamaika Abesbatza zuzendaria

Enrike Azurza: Lan gogorra egin dugu ziklo berriaren hasieran, eta zuzendari gisa, guretzat parte-hartze hutsa saria da guretzat. Hodeietz eta Oroth abesbatzetako zuzendariak, Enrike Azurza eta Katrin Iturralde, azaldu zuten hori.

**Nolako egitarauaren aurkezko zaret?**  
E. A. Egitaraua prestatzea oso garrantzitsua da, Tolosako Lehiaketa saso hartzen baita kontuan, eta prosoa hori nahiko zaila izan zen. K. I. Gauza asko hartu behar dira kontuan. Batek, garai jakin batean...

**«Oroth eta Hodeietz ederki moldatzen dira elkarrekin, antzeko ezagueriak baitituzte»**  
«Lehiaketarako prestatu dugun egitaraua oso polita da, antzeta eta desberdina»

ko abesti bat egotea eskatzen dizute, eta asko egiten dira aukerak. Denbora ere kontuan izan behar da, mugatu jarzaten baitute. Hala, Enrikek kanta batzuk zituen aukeratuak eta nik beste batzuk, eta azkenean horietatik egokienak iruditu zitzaizkigunekin osatu dugu egitaraua.

**K. I. Abestiak antziz dira. Batzuk motelagoak edo lasiagoak dira. Beste batzuetan, berria, instrumentuak in lagunduta abestuko dugu. Hori Folklore alorran izango da, horretarako aukera izaten baita. Hala, esaterako, pianoa izango dugu laguntzen abesti batean, eta baita altxola eta panderoa ere David Azurzak moldatutako Aitu San Antonio abestian. Oihu hau (David Azurza) kantatzen mailaren eritimoak lagunduko gaituzte. Aljondro Yagueren Barber guretzat abestia, berria, gelditago da, ez...**

**«Emanaldi polita egitea eta egindakoaren gustura gertatzea da gure helburu nagusia»**  
«Tolosara etortzen diren abesbatzen maila oso altua izan ohi da, beraz, oso zaila da sarria lortzea»

eman genituen. Burgosen (Españia) beste bi, eta Donostian, Bionan eta Bazarin bana.

**Nolako sententziak jaso dituzte emanaldi horietan?**  
K. I. Oso onak. Oso gustura gertatu gara. Hasierako kontzertuetatik azkenekoetara alden nabaritzen joan gara, beraz, sentiala on da hori. Oso baliagarriak izan dira kontzertuak.

**Ez da lehiaketa honetan parte hartuko duzen lehendabiziko aldia.**  
E. A. Bi abesbatzak sarri berriak lortuak dituzte Lehiaketa. Hain zuzen ere, 1991an Oroth abesbatzak folklore sailan hirugarren saria lortu zuen, eta hurrengo urtean, hau da, 1992an, Hodeietzak sari bera eskuratu zuen.

**K. I. 1991n eta 1994an hartu gemen parte. Lehenengoa Abots Nahasiaren, eta bigarrena Abots Txurietan.**

**E. A. Guk 1989an eta 1992an hartu dugu parte. Bietan Abots Nahasiaren. Zer izango litzateke Sari Nagusia irabazteko?**  
E. A. Poz handia sentituko nuke. Varman (Bulgaria) lortu genuen Sari Nagusia 1990. urtean, eta berrain Baragarria izan zen.

**K. I. [Kar, Kar] Bertan erroko nintzateke hori jakitean. Izugarria litzateke.**  
E. A. Tolosako Lehiaketako maila oso altua izaten da, beraz, benetan zaila da sarri hundertara eskuratzeko.

**K. I. Hona etortzen diren abesbatzak oso onak izaten dira. Gerta daiteke urte batean maila pixka bat biziagoak etortzea, baina oso har oso maila altua izaten dute. Beste lurraldeetan abesbatza musika erakunde berrak izaten dira, eta bertako abesbatzak beste...**

**lagoan abesbatza Erki Poljola-ren omeneko kontzertua izan zen Leidorren. Zer izan zen bera Tolosako Lehiaketarentzat?**  
E. A. Urte ostertzen zion Tolosara. Oso pertsonaia berezia zen, oso gertukoa. Euskal kulturaren maila altua izan zen, eta Finlandia eta Euskal Herriaren artean antzekotasunak ikusten zituen. Bere omeneko emanaldi oso polita eta hunkigarria izan zen, eta jende askok parte hartu nahiz izan zen.

telako lanteko egiten dute. Calera, hemen ez bezala, beste lekutan espreski aukeratuak abesbatzak daude. Beraz, agian koru bera ez da profesionala, baina bertako kideak izan daitezke.

**E. A. Hemen, ordea, amatuerrak dira abesbatzak, eta inolaz ere ez dira abesbati profesionalak.**

## Musikaz gozatzeko prest



Iritzia Migal Zubero Abesbatza zuzendaria

**B**erregitza bigarren Abesbatza Lehiaketarako gaur dagoen asteak bere emanaldiak. Atrario ekitaldiak indartsu ekin zituen aurriko asteetan. Osparren lehena, koruen arteko Topaketa izan gemen. Bertan parte hartu zuten taldeen kurrikulumeak azpimarratzen zuten koru baten baina zuzendaria.

la zuzendari finlandiarri egindako omeneko kontzertua. Emergiz berri berrak, jende ugari bereen lantza eta ekina bateratu genituen abegunean izan zen. Talde askoren lan on eta munduak, kontzertua, parte hunkigarri, skoneko arte, amesteko bidaia edo festa giroa bilakatuak kantu zuten. Gaurtik aurrera, zenabestelako izandako ordea, Lehi eta bere arauak gailenduko dira eta izpiritu horrek, guretzat, guretzat, partidoren lana baliatzen du. Gurtion ahotan izango da bizpide berriko eta besteko jizkariak, baina egiak mailaren erabakia oso egon beharko dute zuzendari nahiz kantariak. Euskal partaideen lanak sortuko digu nahikori berria. Zorretik berria guretzat baina baita bester ere. Gu, entzuleak, musikaz gozatzeko prest gunde.

eman genituen. Burgosen (Españia) beste bi, eta Donostian, Bionan eta Bazarin bana.

# Azken ostiralera eta biharko manifestaziora joateko deia egin dute

**Politika** » Torturaren aurkako martxa nazionala 17:30ean irtengo da Donostiako Antiguako tuneletik.

Amnistiaren Aldeko Mugimendua bat egin du bihar Donostian egingo den Manifestazio Nazionalarekin. Antiguako tuneletik irtengo da martxa 17:30ean, *Torturarik ez!* lelopean.

Villabonako AAMtik azaldu dutenez, «erantzukizun berezia dugu deialdi honen aurrean billabonatarrok. Gure herrikide askok tortura ezagutu dute euren erraizetan. Badira bi kasu, azkenak, ileak dantzan jarri arazi dizkigutenak. Bata Ertzaintzaren eskutik, Manex Castrok helarazi zigun tortura testigantza, eta bestea berriki gure herrikide Karlos Besancek Guardia Zibilaren eskutik jasan dituen

basakeriak. Komunikabide ia gehienek isilean gorde dituzten testigantzak».

Anoetako Ezker Abertzaleak ere herritarrak azken ostiralera eta manifestaziora deitu ditu.

**Tolosan elkarretaratzea 1ean** Abesbatzen Lehiaketaren harira, Etxerrotek elkarretaratzea egingo du azaroaren 1ean, astelehenean, 10:00etan Leidorren aurrean. Herritarrak bertara gonbidatu ditu.

## » ELKARRETARATZEAK

### Gaur, hilak 29

- **Aduna.** 20:00etan.
- **Alegia.** 19:30ean.
- **Amezketeta.** 19:30ean.
- **Anoeta.** 19:30ean.
- **Asteasu.** 20:00etan.
- **Ibarra.** 19:30ean.
- **Ikaztegieta.** 20:30ean.

- **Lizartza.** 20:00etan.
- **Orendain.** 20:00etan.
- **Tolosa.** 19:30ean.
- **Villabona.** 20:00etan.
- **Zizurkil.** 20:00etan.
- **Leaburu-Txarama.** 20:15ean Leaburun.
- **Leitza.** 20:00etan Lopeneko biribilgunean.

## ERREDAKZIOA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko herrietan elkarretaratzeak egingo dituzte gaur, hileko azken ostiralera. Ohiko ordu eta lekuetan elkartuko dira herritarrak euskal presoek elkartasuna agertzeko. «Preso politikoek bizi duten egoera krudela salatzeaz gain, gaurkoan torturak ere hizpide izango dira». Izan ere,



## Eraiketa salatu dute Triangulotik

**TOLOSA** » Marokoko polizia astelehen gauean 14 urteko gazte saharar bat erail zuen tiroz Aaiungo kanpalekutik gertu. Hori nahikoa ez eta ondoren gorpua bahitu zuten hiltzaileek. Herenegun Tolosatik elkarta-

sun mezua igorri zitzaion sendiari eta saharar herriari. 50 lagun inguru Trianguloan elkartu ziren, Tolosaldea Sahararekin Elkarteak deituta. Elkarretaratzearen bidez eraiketa salatu zuten. I. TERRADILLOS

## Galtzaundiren 'Aferi txoura' joateko txartelak salgai aurkitzen dira jadanik

### ERREDAKZIOA

Bat batekotasuna, euskara eta algarra dira Galtzaundik antolatuta datorren azaroaren 12an Tolosako Iurre elkartearen egingo den *afari-txouan* helburuak. Dani Fano eta Asisko Urmeneta komikilariak eta Bixente Gorostidi eta Unai Muñoa bertsolariak bat batean ariko dira bertan. Batzuk marrazten ari diren bitartean, bertsotan ariko dira besteak. Elkarririk buruz, bertaratutakoak zuzenduz. Euskaraz gozatzeko aukera izango da, beraz, afarian.

*Afari Txoua* 21:00etan izango da eta txartelak 25 euroren truke salduko dira Galtzaundiren egoitzan, bazkideek, aldiz, 22 euro ordaindu beharko dituzte. Azaroaren 5a baino lehen erosi behar dira txartelak.

## K Kirol jarduerak

### Tolosan, bihar, urriak 30

#### Areto futbolak

- Usabalgo goiko kantxan, Nazional mailako partida 16:00etan: Laskorain-Bilbo.
- Usabalgo beheko kantxan, 18:00etan, lehen mailako partida: Laskorain - Zaldibia.

#### Saskibaloia

- Usabalgo goiko kantxan, 09:00etan, infantil mutilak eta neskak.
- Usabalgo goiko kantxan, 10:30ean, kadete mutilak: Triki Take-Mondragon.
- Usabalgo beheko kantxan, 18:00etan, Nazional mailako partida: Bide Bide Ibiza - Santurtzi.

#### Esquibaloia

- Usabalgo goiko kantxan, 12:00etan, infantilak: Tolosa-Amenabar.

#### Judoa

- Usabalgo beheko kantxan, 10:00etatik 14:00etara.

#### Futbola

- Usabalgo futbol zelaian, kadetak, 09:30ean: Tolosa CF - Aitzgorri.
- Usabalgo futbol zelaian, kadeten ohorezko mailako partida, 11:00etan: Tolosa CF - Real Sociedad.
- Usabalgo futbol zelaian, 12:30ean, emakumezkoen kadete F11ko partida, Tolosa CF-Lagun Onak.
- Usabalgo futbol zelaian, 15:30ean, futbol eskolako partidak.
- Usabalgo futbol zelaian, 17:30ean, Infantil ohorezko mailako partida: Tolosa CF-Ostadar.
- Berazubiko futbol zelaian, 16:30ean, jubenilen liga nazionalerako partida: Tolosa CF - Ariznabarra.

### Tolosan, etzi, urriak 31

#### Mendi bizikleta

- 10:00etan, Olarrain auzoan, Mendi bizikleten XXII. trabiesa egingo dute.

## H Hilberria

### GEMA FAJARDO VIDAL

Zure bizitzako soka eten, eta ezer gutxi esanda joan zara



**OIARTZUN**  
2010eko urriaren 29a

Txokolategiko solaskideak

### JOSE MANUEL ETXARRI MUJICA

JAUNA



**ANOETA**  
2010eko urriaren 29a

ANOETAKO UDALEKO ZINEGOTZIOHIA

### JOSE MANUEL ETXARRI MUJICA

JAUNA



SUKALDARI GISARA  
MAKINATURTEAN,  
MOKADU ONAK EREBAI  
TARTEAN TARTEAN,  
ZENBAT GOZATU HJEN  
LAGUNEN ARTEAN  
OROITUKO DIAGU  
KUKU ELKARTEAN



**ANOETA,**  
2010eko urriaren 29a

KUKU ELKARTEA

**FUNERARIA VASCONGADA**

902 402 900

www.funeraria-vascongada.com





**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Legre Gordailua:** 55-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarra:** 687 410 118. ibarra@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leizaldea:** 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**



eta Tolosaldeko eta  
Leizaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalac:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agurrak



### Zorionak Aitor!

Gaur 21 urte. Muxu asko ama, aita, Idoia eta Josemigelen partetik.



### Zorionak Iñigo!

Hurrengo gaztaina jatea denok etxean. Muxuak!

**agurrak** urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...



Zorionak Iñigo!!! eta eutsi goiari!

Zorionak Iñigo!  
Eta eutsi goiari!

## A Agenda

### Antzerkia

■ **Asteasu.** Ate joka antzezlan, 21:30ean, udaletxeko zine aretoa.

### Erakusketa

■ **Tolosa.** Irudiak erakusketa GKO Galerian.

■ **Tolosa.** Hildakoak hilibietatik atez, duintasunak berreskuratuz erakusketa Kultur Etxean, Aranzadi Zientzia elkartearen eskutik.

■ **Ibarra.** Alurr dantza taldeak antolatutako argazki erakusketa ikusgai da egun hauetan Benito Izagirre kultur etxean.

■ **Tolosa.** Ignacio Elizaranen erakusketa ikusgai Aranburu jauregian.

■ **Tolosa.** Indonesiako Txotxongi-oen erakusketa dago ikusgai Topik-en.

■ **Tolosa.** Jon Balentziaga eta Enrique Zeberio pertsona gorrek eginitako obren erakusketa izango da ikusgai Fronton kafetegian.

■ **Tolosa eta Alegia.** Lore lehorrekin egindako lanak ikusgai Tolosa-ko Lanbroa tabernan eta Alegiako jubilatuen tabernan. Itziar artista irundarrak eginak.

### Kultur Astea

■ **Oresa.** Talo eta gaztain afaria 19:00etan eta ondoren herriko

bide zaharrei buruzko proiektzioa, Kultur Hamabostaldiaren barruan.

### Deialdiak

■ **Tolosa.** Odola emateko aukera izango da anbulategian 19:00etatik 21:00etara.

■ **Tolosa.** Fronton kafetegian antolatutako X. Mus Txapelketa Azkarraren 13an izango da Beotibar pilotalekuan 16:30etik aurrera. Izena [fronton@jeub.org](http://fronton@jeub.org) helbidean edota 943 65 14 70 telefono zenbakian eman daiteke.

### Musika

■ **Tolosa.** 42. Abesbatza Lehiaketako lehen saioa musika Profano sailean, Leidor aretoa 19:30ean: Anima (Errusia), Salk Lake (AEB), Callirhoe (Suitza), Dyvo (Ukraina), Delaware (AEB) eta Asia (Filipinak).

■ **Tolosa.** Xarma taldearen kontzertua, Bonberenean 22:30ean.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Ibarra.** Ugarte, M.T. Euskal herria, 46. 943 67 32 74.

■ **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

**Kalean euskaraz hitz egitako dituzun eta erantzuna izan nahi duzue?**

**mintzalaguna behar duzu**

**Laguntzaile euskaldunak behar ditugu!**

Informazio gehiago nahi izanez gero:  
Wiboronako Euskara Zerbitzua 943 693 501

Wiboronako Euskara Zerbitzua  
Euskararen gaineko gure erantzukizuna

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** bertako egunkaria

egin zaitez harpidedun!  
**902-82 02 01**  
(Asteunetan 08:30-20:30 / Lanbatetan: 09:00-13:00)

[www.tolosaldeko hitza.info](http://www.tolosaldeko hitza.info)

eraman/bidali izen-emata orria:  
Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa  
Herriko plaza 1 • 31890 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak: \_\_\_\_\_ • N A: \_\_\_\_\_

• Lanbidea: \_\_\_\_\_ • Jaioteguna: \_\_\_\_\_

• Helbidea: \_\_\_\_\_ • Herria: \_\_\_\_\_

• P.K.: \_\_\_\_\_ • Tel.: \_\_\_\_\_

• Posta elektronikoa: \_\_\_\_\_

• Kontu zenbakia:

Ahaztuta 13ko 15/1999 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babesteko, beterik, jakinarazten ditugu zure datu pertsonalak TOLOSALDEKO HEDABIDEAK S.L.-ren fitxategi automatizatu batera pasatuko direla, erregak dituen eskaintzen berrimateneko zure esku dago ikusteko, zuzentzeko, ezabatatzeko eta kontrako egiteko eskubideak erabiltzeko. Hala egin nahi izanez gero, idatzi helbide honetan: TOLOSALDEKO HEDABIDEAK S.L.-Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa, edo harpidetza@hitza.info